


ДЦЯРЯД
LANGILERIA

BAKE FALTSUARI GERRA

HIL DA LUKACS



2019ko uztaila, Euskal Herria

AURKIBIDEA

SARRERA.....	3
DIALEKTIKAREN “JASOTZE” HEGELIARRA.....	4
MARX ETA ENGELS KONTRAJARTZEKO NAHIA.....	12
LUXEMBURGISMOARI BABESA.....	20
ONDORIOAK.....	26

SARRERA

György Lukacs (1885-1971) politikari eta teoriko burges-berrikustzaile hungariarra izan zen. Bankari aberats baten semea, gaztetatik erakutsi zuen filosofia eta literaturarekiko interesa.

1918an Hungariako Alderdi Komunistan sartu zen eta 1919an aldarrikatu zen Hungariako Kontzejuen Errepublikako Kultura ministro izan zen izendatua. Bela Kun-en eta gainontzeko iraultzaileen adoregabeziaren ondorioz Errepublikak amore eman zuen eta Lukacs-ek Vienara egin zuen ihes.

Garai honetan argitaratu zuen 'Historia eta klase-kontzientzia' (1923) bere lan ezagunena, honen zantzu ultraezkertiarren ondorioz Komintern-ak kanporatu egin zuelarik V. Biltzarrean. 1929an "autokritika" bat idatzi zuen (berak aurrerago faltsua zela onartu zuena) Alderdi Komunistatik kanporatua ez izatearren.

30. hamarkadan ESSBra joan zen bizitzera 'Historia eta klase-kontzientzia'-ren autokritika egin ostean, eta ikasketari ekin zion Marx-Engels Institutuan. Han 'Hegel gaztea' idatzi zuen (1938) eta honekin 1942an doktoratu zen, nahiz eta orduan ez argitaratu. 1944an, Hungarian faxismoa garaitua izan eta gero, Budapestera bueltatu zen.

1956an, khrustxovistek "desestalinizazioan" ipinitako Nagy-ren Gobernuako kide zelarik, partaidetza aktiboa izan zuen kontrairaultza saiakeran: bere prestakuntzarako Petöfi Klubeko bileretan parte hartu zuen inperialista yankien agente ziren berrikustzaile titistekin batera, eta honen porrotaren ostean Yugoslaviako enbaxadan ezkutatu zen. Espetxealdi labur baten ostean bere kokapen politikoak alboratu eta Budapesten bizi izan zen heriotza arte.

1967an, 'Historia eta klase-kontzientzia' lanaren argitalpen berriaren hitzaurrean, hau Lenin irakurri aurreko "kutsu idealistako mesianismo iraultzaile utopikoaren" garaiko "lan frakasatu" gisa aurkeztu arren, gerora mantendu zituen tesi anti-marxisten oinarriak antzeman daitezke honetan.

Gaur egun badira tesi hauek "estalinismoaren" aurkako herrari zabalundea emateko eta hainbaten ildo eta joera anti-leninistak justifikatzeko asmotan darabiltenak. Horregatik, Aurrera Langilerian pentsakera honen zutabe esanguratsuenen azterketari ekingo diogu: 'Dialektikaren "jasotze" hegeliarra', 'Marx eta Engels kontrajartzeko nahia' eta 'Luxemburgismoari babesa'.

DIALEKTIKAREN “JASOTZE” HEGELIARRA

Lukacs-entzat “estalinismoaren” akats larrietako bat Hegel-en dialektika jasoaren hautemate oker bat izango litzateke, hau Marx-en materialismo dialektikoari kontrajarriz. Honela marxismo-leninismoa dialektika materialistaren zabartze bat izango litzateke (Sobiet-Batasuneko ‘diamat’ gisa ezagututakoa).

1968an argitaratutako lan batean, honela mintzo zen:

“Marxismo bere herentzia kultural mendebaldarraz dibortziatuta badago, bere oinarri filosofikoak bere aitzindari mendebaldarrez banatuta badaude, orduan bere humanismo zabalaz banatzen da eta bere goi-mailako jomugak galtzen ditu. Stalin-peko taktiken lehentasunak xede hau lortu zuen eta marxismoaren metodologiaren zabartze orokorrera eraman zuen. (...) Dialektikaren errotiko reifikazioa osatzeko, estalinismoak beharrezkoa ikusi zuen marxismoaren gaineko Hegel-en dialektikaren eragin funtsezko eta sortzailea baztertzea. Hegel eta Marx-en arteko dibortzioari oinarri emateko –teorikoki- Zhdanov-ek filosofia hegeliarra Iraultza Frantziarrari erantzun atzerakoi gisa aurkeztu zuen. Era soilki teoriko batean, hau izan zen zabartzeari joeraren laburpena: marxismoa mundu burgesean aurrekaririk gabeko zerbait gisa aurkeztu beharra dago, aurreko munduko garapen historikoekin inolako harremanik gabekoa.”

Demokratizazioa gaur eta bihar – Lukacs

Pertsonaia ezagun bati gogorarazten duen hizkera haserre eta baldarra alde batera utziz, ikus dezagun garaiko Hiztegi Sobietikoak Hegel-i buruz zioena:

“Filosofo germaniar idealista eta dialektiko handia. Hegel-en idealismo objektiboaren –edo absolutuaren- sistemaren arabera, munduaren oinarria Natura eta gizakia agertu aurretik existitzen den «Idea absolutu» jakin bat da. «Idea absolutua», bere izaeragatik, printzipio aktiboa da: halaz ere, bere ekintza soilik arrazoimenean, auto-ezagutzan adierazi daiteke. Ideiaren izaera dialektikoak bere ekintzara, bere auto-ezagutzara bultzada osatzen du. «Idea absolutua» bere izatez kontraesankorra da, mugitzen eta aldatzen da, ezeztatzen eta bere aurkakoan bihurtzen da. (...) Halakoa da Hegel-en sistema filosofiko idealista. Filosofia idealista hegeliarrean balioduna dena metodo dialektikoak duen eragina da; ideia kontraesan dialektikoen oinarriaren gain garatzen denaren baieztapena, garapenean aldaketa kuantitatiboetatik aldaketa kualitatiboetarako iragatea ematen dela, egia zehatza dela, giza-sozietatearen garapen-prozesua legeen arabera eta ez banakoaren erabakimenari jarraiki egiten dela. (...) Hegel XIX. mende hasierako burgesia germaniarraren ideologoa izan zen, aurrerakoia bere aurrean azaldu ziren zereginengatik, baina kikil eta inkontsekuentea, feudalismoarekin konpromezua bilatuz. Hein handi batean horren ondorioz, bere dialektika bikaina arren, Hegel-ek monarkia feudal prusiarra giza-sozietatearen etapa azken eta goren gisa aitortu zuen. Dialektika hegeliarra, bere izaera idealistaren ondorioz, oso desitxuratuta, moztuta, azal idealista batez, «hegelianismoaz» estalita dago. Marx eta Engels-ek, haien doktrina filosofikoa sortzerakoan, materialismo dialektikoa, ez zuten dialektika hegeliarra Hegel-ek sortu zuen bezala hartu, baizik eta berregin zuten, guztiz «buruz gora» ipiniz. Beren metodo dialektikoa bereiztean, Marx eta Engels-ek maiz Hegel ipintzen dute dialektikaren funtsezko ezaugarriak azaldu zituen filosofo bezala. Baina honek ez du esan nahi Marx eta Engels-en

dialektika, dialektika hegeliarraren berdin-berdina denik. Egiazki Marx eta Engels-ek Hegel-en dialektikaz soilik bere «muin arrazionala» hartu zuten, azal idealista hegeliarra baztertuz eta dialektika garatuz egungo forma zientifikoa emateko.»

Hiztegi filosofiko marxista – Mark Rosental eta Pavel Yudin

Baina hobe Marx-ek berak azaltzen badigu dialektika hegeliarraren eta berak garatutako materialistaren arteko desberdintasuna:

“Nire metodo dialektikoa ez da bakarrik Hegel-en metodoaz funtsean desberdina, baizik eta, denean eta denagatik, bere antitesia da. Hegel-entzat, pentsamenduaren prozesua, berak ideiaren izenpean bizitza propioa duen subjektu ere bihurtzen duena, benetakoaren sortzailea da, eta hau gorpuzten den kanpoko forma bakuna. Niretzat, ideala ez da, aitzitik, materiala gizakiaren buruan itzulita eta sartuta baino.

(..) Honengatik erabaki nuen pentsalari handi horren jarraitzaile gisa aho betean agertzea, eta noizean behin bere mintzaira bereziarekin nolabaiteko zerikusia izatera ere iritsi nintzen, balioaren legeari eskainitako kapituluan adibidez. Dialektikak Hegel-en eskuetan mistifikazio bat jasateak, ez du kentzen filosofo hau bere mugimendu-forma orokorrak era zabal eta kontzientean azaltzen jakin zuen lehena izatea. Gertatzen dena harengan dialektika alderantzikatua agertzen dela da, buruz behera. Ez dago buelta ematea besterik, buruz gora ipintzea hobe esanda, eta berehala aurkitzen da hazi arrazionala azal mistikoaren azpian.”

‘Kapitala’-ren bigarren argitalpenari hitzatzea – Marx

Lukacs-en haustura ezak Hegel-en idealismoarekin materialismo dialektikoa giza-sozietatearen fenomenoaren azterketara murriztera darama, hau materia forma guztietara hedatzea ekidinez. Hots, banaketa zurrun bat ezartzen du gizadia “dialektikoaren” eta gainontzeko natura “metafisikoaren” artean, dialektikaren izaera unibertuala ukatuz.

“Metodoaren mugaketa hau errealitate historiko-sozialari garrantzitsua da oso. Dialektika adierazteko era engelsiarrak sorrarazi dituen gaizkiulertuak Engels-ek –Hegel-en eredu okerra jarraituz- metodo dialektikoa naturaren ezagutzara hedatu izanagatik datoz batez ere; hala izanik dialektikaren zehaztapen erabakiorrak: subjektu eta objektuaren arteko elkarrekiko ekintza, teoria eta praxiaren batasuna, kategorien substratuaren aldakuntza historikoa bere aldakuntzaren fundamentu gisa pentsamenduan, eta abar. ez direla naturaren ezagutzan aurkitzen.”

Historia eta klase-kontzientzia – Lukacs

Lehenik eta behin hau gezur hutsa da, Hegel-ek ez baitzuen esaten garapen dialektikoaren legeak naturan ematen zirenik (Lukacs-ek bezala preseski). Hau da, naturan soilik lekualdatze fisikoaren aldaketak emango lirakeke, ikuspegi mekanizista dena.

“Naturaren ikusmolde anti-historikoa ondorioz ekidinezina zen. Ikusmolde hau ezin zaie XVIII. mendeko filosofoei aurpegiratu, are gutxiago Hegel-en ere agertzen den heinean. Honetan, natura, ideiaren «enajenazio» soil gisa, ez dauka garapenik denboran zehar, bere aldaera espazioan soilik zabaldu ahal izanez, zeinaren ondorioz bere baitan gordetzen dituen garapen-fase guztiak batera eta aldi berean erakusten dituen eta prozesu berberen errepikapen betierekora madarikatuta

dagoen. Eta espazioan zeharreko, baina denboraz kanpoko -bilakaera ororen oinarritzko faktorea-, bilakaera baten zentzugabekeria hau, Hegel-ek naturari eskegitzen dio preseski Geologia, Enbriologia, landareen eta animalien Fisiologia eta Kimika organikoa eratu ziren unean, eta zientzia berri hauen oinarriaren gain toki guztietatik aieru apartak ateratzen zirenean –adibidez, Goethe eta Lamarck-enak-, gerora eboluzioaren teoria izan behar zenarenak.”

Ludwig Feuerbach eta filosofia germaniarraren amaiera – Engels

Hau onartezina bazen XVIII. mendean, zer esanik ez XX-XXI.ean...

“Era berean, izaki organiko oro da, uneoro, hura bera eta beste bat; uneoro bereganatzen doa kanpotik xurgatutako materialak eta beste batzuk bere baitatik deuseztatu; uneoro hiltzen dira zelula batzuk bere organismoan eta beste batzuk jaiotze; eta aldi gutxi gorabehera luze baten ostean, osatzen duen materia osoki berritzen da eta materia-atomo berriek zaharren tokia hartzen dute, zeinaren ondorioz izaki organiko oro da, aldi berean, dena eta desberdin bat. Halaber, gauzak arretaz behatuz aurkitzen dugu antitesi baten bi poloak, positiboa eta negatiboa, bata besteaz banaezin bezain antitetikoak direla eta, bere aurkakotasuna arren, elkarrekiko baneratzten direla; eta sorburua eta ondorioa halako eran kasu zehatzera ezartzerakoan soilik agintzen duten irudikapenak direla, baina kasu zehatza Unibertsoaren irudi osoarekin bere kateamendua aztertuz, ekintza eta erantzun bilbe unibertsal baten ideian batu eta desegiten direla, zeinetan sorburuek eta ondorioek tokiz aldatzen duten etengabe eta orain edo hemen sorburua dena, gero edo han ondorioaren izaera hartzen duela, eta alderantziz.”

Sozialismo utopikotik sozialismo zientifikora – Engels

Marx eta Engels-ek materialismo dialektikoaren metodoaren bidezko azterketa naturaren eta zientziaren alor ezberdinetara hedatu zuten: aritmetika, agronomia, geologia, fisika, kimika, eta abar. haien arteko gutun anitzetan egiaztatu daitekena, naturan ere historia zegoela azpimarratuz.

“Oso garrantzitsua da Fraas-en lana (1857), ‘Klima und Pflanzenwelt in der Zeit, eine Geschichte beider [“Klima eta flora denboran zehar; bien historia”]’, zehazki klima eta flora aldi historikoan aldatzen direla egiaztatzeko. Darwinista da Darwin baino lehenago eta espezieak berak aldi historikoan agertzea eragiten du.”

Engels-i gutuna (1868) – Marx

Lukacs mokofinarentzat, ordea, naturako fenomenoek ez dute denboran zeharreko aldaketarik, ez dute historiarik, eta are gutxiago garatzen dira lege dialektiko unibertsalen arabera.

“Ezinezkoa izan daiteke, Heraklito-ren arabera, bi aldiz erreka berean bainatzea; baina betiereko aldaketa bera bilakatzen ez denez, baizik eta denez, hots, ez duenez kualitatiboki berria den ezer sortzen, ez da bilakaera bat gauza partikularren izate finkoari dagokionez baino. Osotasunaren doktrina gisa, betiereko bilakaera agertzen da, betiereko izakiaren doktrina gisa ere eta jariatzen den errekaren atzean, esentzia aldaezin bat dagoenean, era esentzial hori gauza partikularren etengabeko aldaketan adierazten bada ere.”

Historia eta klase-kontzientzia – Lukacs

Ez dakigu Lukacs-ek errekan igeri egitea gustoko zuen ala ez, baina argi dagoena da ez zuela haren esentziaren barnekotasunean sakontzeko inolako asmorik. Ura ordeztu garagardoa izango balitz, agian...

“Soilik zientzia bat onartzen dugu, historiaren zientzia. Historia, bi ikuspuntuetatik hartuta, naturaren historian eta gizakien historian banatu daiteke. Bi aldeok, hala eta guztiz ere, ez dira banagarriak; gizakiak existitzen diren bitartean, naturaren historia eta gizakien historia elkarrekiko baldintzatuko dira. Ez dugu hemen naturaren historia ikutuko, natur-zientziak deiturikoak; gizakien historiari helduko diogu, ia ideologia guztia historia honen ikuskera desitxuratu batera edo honen erabateko abstrakzio batera murrizten baita. Ideologia bera historia honen alde bat besterik ez da.”

Ideologia germaniarra – Marx eta Engels

Lukacs-ek “naturala” gizartearen parte gisa hartzen du kontuan bakarrik, baina zer da “natura” hau? Berarentzat ekoizpen-modu jakin batean normalizatutako harreman sozialak izango liriateke, betiereko izatearen itxura dutenak, kapitalismoan merkantziaren nagusitasunaren ondorioz sortutako harreman “kosifikatuek” hauek ordeztu arte. Edonola ere, zapalkuntza-harreman klasista hauek dialektikatik kanpo kokatzen ditu baita ere.

“Natura kategoria soziala da. Beste modu batean esanda, bilakaera sozialaren etapa jakin batean naturatzat hartzen dena, naturaren eta gizakiaren arteko harremanaren karaktereak eta gizakiaren naturarekin duen konfrontazioa jazotzen den forma, laburki, naturak bere formarekiko eta bere edukiarekiko adierazi behar duena, bere hedapen eta objektibitatea, sozialki determinatuta dagoen zerbait da beti.”

Historia eta klase-kontzientzia – Lukacs

Dialektika materialistaren murrizte hau naturara soilik ez, baizik eta materialismo historikora ere (materialismo dialektikoaren ezarpena dena gizadiaren garapenari) hedatzen du Lukacs-ek, hau bakarrik gizarte burgesarentzat “baliagarri” bilakatuz.

“Ondorioz, ez zen akats bat XIX. mendeko historiara materialismo historikoa bere forma klasikoan zurrunki eta baldintzarik gabe ezartzea. Zeren, mende honetako historian gizartearen gain ekin zuten indar guztiek, egiaz «izpiritu objektiboaren» agertze-forma gisa bakunki ekin baitzuten. Baina gizarte aurre-kapitalistetan ez zen hala izan zehazki. Bizitza ekonomikoa ez zen haietan oraindik bere helburu propio bezala aurkezten, oraindik ez zen bere buruaren gainean itxi eta ez zen bere buruaren jabe, oraindik ez zuen gizarte kapitalistan iritsi duen immanentzia. Hemendik ondorioztatzen da materialismo historikoa ezin dela era berean ezarri formazio sozial aurre-kapitalistei eta bilakaera kapitalistakoei.”

Historia eta klase-kontzientzia – Lukacs

Honela ulertezin bihurtzen du historian zehar emandako klase-borroka baita honen kontzientzia-formak ere.

“Giza-sozietatearen historia osoa, egun arte, klase-borrokaren historia da.

Gizaki aske eta esklabuak, patrizio eta plebeioak, baroiak eta jopuak, maisuak eta ofizialak; hitz batean, zapaltzaileak eta zapalduak aurre egin zuten beti, etengabeko borroka bat mantendu zuten, ezkutukoa batzuetan, eta beste batzuetan argia eta irekia, beti gizarte osoaren eraldaketa iraultzailearekin ala lehian zeuden klaseen hondoratzearekin amaitu zuen borroka.

Aurreko garai historikoetan ia toki orotan gizartearen erabateko bereizketa bat aurkitzen dugu estamentu ezberdinetan, bakoitzaren barnean era berean gradu eta kokapenen hierarkia berri bat aginduz.(...)

Gizarte feudal zaharraren hondarren artetik atera den gizarte burges modernoak ez ditu klase-aurkakotasunak deuseztatu. Klase zaharrak, zapalkuntza-baldintza zaharrak, borroka-molde zaharrak, beste berri batzuentatik ordezkatu ditu soilik.”

Manifestu Komunista – Marx eta Engels

Marx eta Engels-ek materialismo historikoa jorratu zuten hainbat eta hainbat lanetan: Indiako antzinako kasten bizimoduaren azterketan, Irlandako jabetza komunalaren inguruan, errusiar nezakal-komunaren inguruan, antzinako Greziaren lurraren errentari buruz...

Jakina da Engels-ek ‘Familiaren, jabetza pribatuaren eta Estatuaren jatorria’ maisulanean materialismo historikoa gizadiaren historiari ez ezik, aurre-historiari ere ezarri zuela. Hain ezaguna ez dena, ordea, Marx-ek lan honen zati garrantzitsu bat garatu zuela da.

“Hurrengo kapituluak, zentzu batean, testamentu baten betearazpena dira. Karl Marx prest zegoen pertsonalki aurkezteko Morgan-en ikerketen emaitzak bere (neurri bateraino, gure esan dezaket) historiaren azterketa materialistaren ondorioen argitara, honela, eta soilik honela, bere irismen osoa argitzeko.”

‘Familiaren, jabetza pribatuaren eta Estatuaren jatorria’ren I. argitalpenari hitzaurrea – Engels

Materialismo historikoa garai antzinetara ezartzeak zailtasuna dauka dudarik gabe: aztertu beharreko materialaren falta, bere garaian bizirautean zuten aurreko sistema klasisten aztarnen baita testigantza idatzien bitartez lortu zutena. Baina inondik inora ez materialismo historikoa gizarte aurre-kapitalistetara ezartzeko ezintasuna.

“Ez da zio ekonomikoen gailentasunak historiaren azalpenean marxismoa zientzia burgesatik era erabakiorrean desberdintzen duena; osotasunaren ikuspuntua da. (...) Baina ez zen hala gertatu alderantzikatzeko materialistari jarraikiz sinpleki. Hobeto esanda, esan daiteke dialektika hegeliarraren printzipioa soilik alderantzikatzeko horretan eta beragatik agertu ahal izan zela metodoaren esentzia babestua izan zelako, hots, osotasunaren ikuspuntua, fenomeno partzial guztien kontsiderazioa osoaren, pentsamenduaren eta historiaren batasun gisa ulertutako prozesu dialektikoaren une bezala.”

Historia eta klase-kontzientzia – Lukacs

Marxismoarentzat osotasunak berebiziko garrantzia duen arren, materiaren eta honen mugimendu-formena preseski, ezin zaio oinarri ekonomikoari kontrajarri. Are gutxiago giza-sozietatean osotasun honek oinarri ekonomikoak osatzen duenean:

“Hain zuzen ere, ekoizpen honen adierazleak aurkitzen diren elkarrekiko harreman hauen eta ekoizten duten naturaren osotasuna gizartea da preseski, bere oinarri ekonomikotzat hartuta. Ekoizpen-prozesu kapitalista, aurretik izan zituenak bezala, baldintza material jakin batzuen pean garatzen da, aldi berean banakoek haien biziaren erreproduzio-prozesuan hartzen duten harreman sozial jakin batzuen adierazle direnak.”

Kapitala, III. Liburua – Marx

Lukacs-en kasuan, ordea, osotasun horrek kontzientziari egingo lioke erreferentzia, soilik gizarte kapitalistaren ekoizpen-harremanak umotzerakoan jaio daitekeena. Osotasunaren kontzientzia hau da dialektika benetan ekingo lukeen eremu bakarra, eta klase bakarrari dagokio: proletalgoari.

“Era honetan, soilik kapitalismoaren, gizarte burgesaren eremuan posible bilakatzen da gizartean errealitatea ezagutzea. (...) Soilik proletalgoaren agerpenarekin aurkitzen du errealitate sozialaren ezagutzak bere hobetzea: proletalgoaren klase-ikuspuntuekin aurkitu da puntu bat zeinetik aurrera gizartearen osotasuna ikusgarri egiten den. Materialismo historikoarekin jaio dena aldi berean da «proletalgoaren askapen-baldintzen» doktrina eta garapen historikoaren prozesu osoaren errealitatearen doktrina da, (...) Teoria eta praxiaren batasuna ez da proletalgoaren egoera sozial eta historikoaren beste aurpegia baino; proletalgoaren ikuspuntutik bere buruaren ezagutza eta osotasunaren ezagutza bat datoz; proletalgoa bere ezagutza propioaren subjektu eta objektu da aldi berean.”

Historia eta klase-kontzientzia – Lukacs

Hasteko, materia oinarrizko gisa hartu behar da, eta kontzientzia eratorritakoaz. Azken finean, materia garapen puntu batera iristean, gizakiaren garuna agertzean, materia bere izateaz jabetzen den unean jaiotzen da kontzientzia.

“Materia oinarrizkoa da. Sentipena, pentsamendua, kontzientzia era berezi batean antolatutako materiaren ekoizkin gorena da. Horiek dira materialismoaren ikuspuntuak orokorki eta Marx eta Engels-ena bereziki.”

Materialismoa eta enpirio-kritizismoa – Lenin

Hortaz, kontzientziak jauzi kualitatibo bat suposatzen du animalien erreinuaz desberdintzerako orduan, gizakiei haien jarduna aurreikusteko eta honen arabera ekiteko aukera emanez. Baina ez da urre dir-dir egiten duen oro...

“Gizakiarekin historian sartzen gara. Animaliek ere historia bat dute, haien jatorri eta apurkako garapenarena oraingo egoerara arte. Baina animaliak historiaren subjektu pasiboak dira, eta hartan parte hartzen duten neurrian, hau haien ezaguera edo nahimena gabe gertatzen da. Gizakiek, aitzitik, animalietatik hitzaren zentzu hertsitik zenbat eta gehiago aldendu, maila handiagoan egiten dute historia haiek beraiek, kontzienteki, eta are txikiagoa da historia honen gain ustekabeko inguruabar eta kontrolik gabeko indarrek duten eragina, eta are gehiago dator bat

zehazki emaitza historikoa aurretik ezarritako xedeekin. Baina neurri bera erabiltzen badugu giza-historiarentzat, gure mendeko herri garatuenen historiarentzat ere, ikusiko dugu hemen ere proposatutako helburuen eta lortutako emaitzen arteko desadostasun itzela badagoela oraindik, ikusiko dugu aurreikusi gabeko influentziak nagusitzen jarraitzen direla, kontrolik gabeko indarrak plan bati jarraiki martxan ipinitakoak baino askoz ere indartsuagoak direla. Eta ez da beste era batean izango gizakien jarduera historiko esentzialena, egoera animalitik gizatiarrera jaso dituen eta beste jarduera guztien oinarri materiala osatzen duena -haien bizibideen ekoizpenari buruz ari naiz- kontrolik gabeko indarren aurreikusi gabeko ekintzaren meneko den bitartean, eta gura den helburua soilik salbuespen gisa lortzen denean eta askoz maizago zeharo aurkakoak diren emaitzak lortzen diren bitartean.”

Naturaren dialektikari sarrera – Engels

Sozialismo Zientifikoa aurrerapen handia da langileriarentzat errealitate materialaren eta bere klase-egoeraren ulermenari begira. Halere, hortik ezin da ondorioztatu gainontzeko klaseek haien buruaren kontzientzia izan ezin dutenik. Burgesiaren kasuan hau argiro ikusi daiteke, faxismoan adibidez, baina aurreko sistema klasistetan ere ematen da fenomeno hau.

“Baina edozein izanda kontraesan hauen forma, gizartearen zati baten esplotazioa bestearen partez gertaera komuna da aurreko mende guztiei. Ondorioz ez dauka ezer harrigarrik mende guztietako kontzientzia sozialak, aniztasun guztia eta desadostasun guztiak gorabehera, beti forma komun batzuen barne mugitu izana, kontzientzia-formak, ez direnak guztiz desagertuko klase-aurkakotasunen behin betiko desagertuarekin baino.”

Manifestu Komunista – Marx eta Engels

Bestetik, proletalgoari “subjektu-objektu identiko” harremana esleitzea Hegel-ena baino hegelianismo hegeliarragoa da. “Subjektu-objektu identikoaren” gauzatzea Hegel-entzat “izpiritu absolutuaren” lorpen gorena da, “enajenazioaren” desagertuarekin, “nor bere buruaren kontzientziaren” itzulerarekin. Hemen marxismotik lapurtutako hitz pare bat trukatzuz hurrengo emango digu:

“Proletalgoa prozesu historikoaren subjektu-objektu identikoa den ikuspuntua, hots, historiaren bilakaeran kontzientzia sozial egoki bat izateko (objektiboki) gai den lehen subjektua, forma zehatzago batean agertzen da horrela. Ezagutza ematen da, hain zuzen ere, kontraesanen ebazpen objektiboki soziala, zeinetan eboluzioaren mekanismoaren aurkakotasuna agertzen den, ez dela praktikoki posible baizik eta ebazpena proletalgoaren kontzientziaren etapa berri bat bezala agertzen denean, praktikoki erdietsitakoa. Ekintzaren doitasun ala faltseria funtzionalak, ondorioz, bere azken irizpidea klase-kontzientzia proletarioaren eboluzioan aurkitzen du.”

Historia eta klase-kontzientzia – Lukacs

Hau metafisika hutsa da. Suposatuz proletalgoak “bere gaineko ezagutza” erabatekoa lor zezakeela, egia erlatiboa eta absolutuaren arteko harremanaren auzia mahagaineratzen duena, horregatik ez luke zapalkuntzatik at dagoen egoera kontzientziaren bidez soilik lortuko. Kasu honetan “enajenazioa” Lukacs-ek “kosifikazio” deritzonari dagokiona da, ekoizpen-harreman kapitalistek sortutakoa.

“Ekintza berriek aurreko historiari osoa ikerketa berriak ezartzea derrigortu zuten, orduan ikusi zen, egoera primitiboa salbu, aurreko historia osoa klase-borrokaren historia izan zela, eta haien artean lahian zeuden klase sozial hauek garai guztietan ekoizpen- eta truke-harremanen, hots, bere garaiko harreman ekonomikoen, emaitza zirela: gizartearen egitura ekonomikoak historiaren garai bakoitzean osatzen duela ondorioz benetako oinarria, zeinaren ezaugarriek azaltzen duten azken finean gainegitura osoa, garai historiko bakoitzaren instituzio juriko eta politikoez, hala nola ideologia erlijiosoaz, filosofikoaz, eta abar. osatutakoa. Hegel-ek historiaren ikuskera metafisikaz askatu zuen, dialektikoa egin zuen; baina bere historiaren interpretazioa izatez idealista zen. Orain idealismoa bere azken gotorlekutik, historiaren ikuskeratik, kanpo geratzen zen, historiaren ikuskera materialista batek ordezturik, gizakiaren kontzientzia bere existentziagatik azaltzeko bidea irekiz, eta ez hau bere kontzientziagatik, ordura arte ohikoa zena.”

Sozialismo utopikotik sozialismo zientifikora – Engels

Lukacs-en ohikoa den hitz-jario ulerkaitz (eta jasanezin) guzti honen atzean Hegel-en “ideia absolutuaren” forma lardaskatuak ageri dira, berak kapitalismoaren jaiotzara idealistikoki lekualdatzen duena.

Guzti honekin lotuta dago jorratuko dugun hurrengo puntua: Marx eta Engels kontrajartzeko nahia.

MARX ETA ENGELS KONTRAJARTZEKO NAHIA

Nahiz eta lehena ez izan (baina bai “arrakasta” gehien izan duena intelektual karkailen artean, Frankfurteko Eskolan bereziki), Lukacs Marx eta Engels kontrajartzen saiatzen da, azken hau baztertuz. Era honetan, nolabait ildo bat osatuko litzateke Marx-Lenin lerrotik eta beste bat, “dogmatikoa”, “metafisikoa” eta “zakarra”, Engels-Stalin lerrotik. Honen helburua Sozialismo Zientifikoaren printzipioak baztertzea izango litzateke asmatutako “benetako sozialismo” batez ordezteko.

Aurreko atalean ikusi dugun naturaren azterketa dialektikoaz gain, badira Lukacs-ek Engels-i aurpegiatzen dizkion auzi gehiago bere “ezjakintasuna” agerian uzteko.

“Baina, hauen ondoan, mundua ezagutzearen aukera ukatzen duten filosofo multzo bat dago, edo gutxienez era oso batean ezagutzearena. Haien artean modernoak ditugu, Hume eta Kant, eginkizun gogoangarri bat bete dutenak filosofiaren garapenean. Ikuspuntu honen gezurtapenaren argudio erabakigarriak jada Hegel-ek eman ditu, kokapen idealista batetik egin zitekeen neurrian; Feuerbach-ek materialistaz gehitzen duena, gehiago du burutsuz sakonez baino. Bitxikeria hauen gezurtapen biribilena, gainontzeko bitxikeria filosofiko guztiena bezala, praktika da, hau da, esperimentazioa eta industria. Prozesu natural bat ulertzeko gure eraren zehaztasuna guk geuk erreproduzitzen egiazatu badezakegu, bere baldintza beren emaitza gisa sortuz, eta gainera, gure helburu propioen menera ipintzen badugu, zeharo hondatzen dugu Kant-en «berezko gauza» hautemanezina. Landa- eta animalia-munduan sortutako substantzia kimikoak «berezko gauza» hautemanezinak izaten jarraitu zuten kimika organikoak bata bestearen ondoren ekoizten hasi arte, «berezko gauza» guretzako gauza bihurtu zen, adibidez, otxarraren materia koloregaia bezala, alizarina, egun jada ez duguna landare horren sustraitik ateratzen, baizik eta harrikatzen mundrunetik lortzen dugu, askoz ere merkeagoa eta errazagoa den prozedura.”

Ludwig Feuerbach eta ideologia germaniarraren amaiera – Engels

“Baimendua izan zaidala digresio bat egitea berezko gauzaren arazoari buruzko Friedrich Engels-en behaketen inguruan, behaketa horiek, gure arazoa zuzenean adierazten ez badu ere, inguru marxistetan kontzeptu horren interpretazioan eragin duelako, eta hauek zuzenki ez interpretatzean gaizkiulertuak sortzeko arriskua aise dago. (...) Edozeren aurretik terminologiaren zehaztasun eza zuzendu beharra dago, ia ulertezina dena Engels bezalako Hegel-en ezagutzailerik batean. Hegel-entzat «berezko» eta «guretzako» ez dira inola ere aurkakakoak, baizik eta alderantziz, beharrezko korrelatuak. Zerbait «berez» bakunki emana bada, horrek Hegel-entzat esan nahi du «guretzako» bakunki emana dela. «Guretzako edo berez»en aurkakoa «berarentzako» da hobe esanda, objektuaren izate-pentsatua aldi berean objektuaren berezko kontzientzia esan nahi duen kokapen mota hori. Beste aldetik, ezagutzaren teoria kantiarra guztiz ez jakitea da berezko gauzaren arazoa gure ezagutzen hedapen zehatz baten aukerari muga bat dela jotzea. (...) Bere arrazoi puruaren kritikak soilik egiten dio erreferentzia fenomeno multzoaren ezagutza bukatua ere ez litzakeela preseski fenomeno ezagutza bat baino izango (berezko gauzari aurkakotasunean); fenomeno multzoaren ezagutza bukatuak ezagutza horren egiturazko muga inoiz gainditu ahal izango ez lukeelako, hots, gure formulazioaren arabera, osotasunaren antinomiak eta edukien antinomiak.

Kant-ek era aski argian ebatzi du agnostizismoaren auzia, Hume-ren arazoa (eta Berkeley-rena, zeinetan aipatu gabe pentsatzen duen), idealismoaren gezurtatzearen parteari dagokionean.”

Historia eta klase-kontzientzia – Lukacs

Hasteko Engels hemen Kant-en “berezko gauzak” mintzo da, ez Hegel-enaz. Kant-en arabera “berezko gauza”, gutaz kanpo dagoena, ezin dugu zinez ezagutu jasotzen dugun gauza bakarra gure pertzeptzioen bidezkoa delako, eta ondorioz “ezagutezina” da, erlijioaren bidez soilik iritsi daitekeena. Beraz fenomeno hori erreproduzitzean Engels-ek “ezagutezin” hori desagertzen dela frogatzen du, “berezko gauza” eta “guretzako gauza” bera direlako (edo gero eta gehiago hurbiltzen delako).

Bigarrenik, Hegel-en “berezko gauza”, gutaz kanpo dagoena, “guretzako” ezagutu dezakegu, baina ez da benetako ezagutza, hau “ideia absolutuaren” autokontzientziaren bidez soilik iritsi baitaiteke “norberarentzako gauza” bilakatuz.

Lenin-ek hau azalduko digu hobeto, V. Chorvinov-i aurre eginez (Marx eta Engels kontrajartzen saiatzen zena baita ere):

“Lehenik eta behin, ez da egia Engels-ek “berezko gauzaren gezurtapena lortu” nahi izatea. Engels-ek era ireki eta argian esaten du Kant-en berezko gauza hautemanezina (edo ezagutezina) gezurtatzen duela. Chernov jaunak gure kontzientziaz independenteak diren gauzen existentziaren Engels-en kontzeptu materialista nahaspilatzen du. (...) Kant-ek, aldiz, “berezko gauzaren” existentzia onartzen du, baina “ezagutezin” deklaritzen du, fenomenoaz desberdina printzipioz, eremu ezberdin batekoa printzipioz, “haragokoaren” eremukoa (Jenseits), jakintzari eskurazina, baina fedeari erazagutua.”

Materialismo eta enpirio-kritizismoa – Lenin

Badirudi Lukacs-ek beltzak ikusten zituela Engels-i akatsak egozteko eta asmakizun eta maneiurak traketsetara jo behar zuela honetarako, egiatan bere ezjakintasun propioa agerian uzten dutenak. Baina gauza ez da hemen amaitzen.

“Engels-en gaizkiulertu sakonena industriaren eta esperimentazioaren jarrera propioari praxia-filosofia dialektikoaren zentzuan- deitzen diola da. Baina, esperimentazioa preseski puruki kontenplaziozkoena den jokaera da. Esperimentatzaileak ingurune artifizial, abstraktu bat sortzen du oztoporik gabe behatzen ari diren legeen jokua -joku hori hautsia izan gabe- behatu ahal izateko, elementu irrazional eta deseroso guztiak ezabatuz, hala subjektuaren aldean nola objektuaren aldean. Bere behapenaren funts materiala puruki arrazionala den «produktura» ahal den neurrian murrizten saiatzen da, matematikarien «materia ulergarrira».”

Historia eta klase-kontzientzia – Lukacs

Esperimentazioa ez da inondik inora “kontenplazioa”, praxia baizik. “Berezko gauzak” zuzenean ezagutzeko metodo esperimental baina beste biderik egongo baitz bezala!

“Praktika ezagutza (teorikoari) gorena da baduelako, ez soilik unibertsaltasunaren dignitatea, baizik eta berehalako errealitatearena.”

Koaderno filosofikoak – Lenin

Noski, praxia ezin da honetara murriztu: praktika gizaki eta klase jakin batzuen aktibitate material eta soziala da natura eta gizartea eraldatzeko, beraz izaera objektibo eta soziala du. Gizabanako bakoitzak esperientzia indibiduala jasotzen du errealitate objektiboan eragitean, halere, baina gizakia izaki soziala da, harreman sozial jakin batzuen eramailea, ez baitago klaseetatik at edo gorago izaterik. Praktikak, bere gradu bakoitzean, bere garapen maila bakoitzean, ezagutzarekin aurkitzen da. Honela bataren sakontasuna bestarenarekin lotuta dago: praktikan oinarrituz jakintza garatzen da, teoriak eraikitzen dira; praktikan ezarriz teoria hauek egiaztatuak eta zuzenduak dira, osoagoak egiten doaz. Errealitate objektiboaren ezagutza sakonak praktika du oinarritzat.

“Gure “esperientzia” eta gure ezagutza gero eta gehiago egokitzen dira espazio eta denbora objektiboetara, hauek gero eta zehazkiago eta sakonago islatuz.”

Materialismoa eta enpirio-kritizismoa – Lenin

Baina teoria jakin batzuk erabilgarriak izan daitezke gizabanako edo geruza sozial jakin baterako, eta ez izan ez egiazkoak ez objektiboak. Era berean egiazko teoria batek eman ditzake gizabanako edo geruza sozial jakin baterako erabilgarriak ez diren emaitzak, eta honek ez luke frogatuko teoria horiek ez zutela errealitate objektiboarekin bat egiten. Ondorioztatu zitezkeen baita ere objektu, ekintza edo fenomeno berdinerako egia anitz existitzen direla, planteatzen dituenaren arabera.

“Materialistarentzat, giza-praktikaren «arrakastak» erakusten du gure irudikapenen bat-etortzea hautematen ditugun gauzen izate objektiboarekin.”

Materialismoa eta enpirio-kritizismoa – Lenin

Beraz ezagutzek, teoriak, ikuspuntu jakin batek errealitate objektiboa era zuzenean islatzen dute praktikak beren edukiaren egiazkotasuna frogatzen duen heinean.

“Ez da inoiz ahaztu behar, hala ere: soilik proletalgoaren klase-kontzientziak kontzientzia praktikoa eginda dauka funtzio eraldatzaile hau. Kontenplaziozkoa eta puruki ezagutzazkoa den jarrera oro azken azterketan objektuarekin harreman dualista batean dago, eta hemen aztertutako egituraren sarrera sinplea proletalgoaren ekintza ez den edozein jarreran -eta soilik klasea denaren bilakaerarekin bere harremanean izan daiteke praktikoa- kontzeptuzko mitologia berri bat ernalarazi behar du derrigorrean, berrerortze bat eragin filosofia klasikoaren mailara, Marx-ek gainditutakoa. Puruki ezagutzazkoa den jarrera oro berehalakotasunez zikinduta dago; beste era batean esanda, azken azterketan prozesuetan desegin ezin diren objektu bukatuen multzo baten aurrean aurkitzen da. (...) Proletalgoa bera ez baita gai kosifikazioaren halako gainditzeaz jarrera benetan praktikoa izan ezean. Eta prozesu horren esentzia da kosifikazio-forma guztien gainditze-egintza bakarra osatzen ez duela hain zuzen ere; objektu multzo bat prozesu horren irismenetik gutxi gorabehera kanpo geratzen dela dirudi. Hau lehenik naturari dagokio. Baina bistakoa da baita ere fenomeno sozial multzo oso bat dialektizazio bat jasaten dutela, fenomenoaren beste martxa

bat jarraituz, zeinen inguruan dialektika sozialaren esentzia behatzen eta erakusten saiatu garen, kosifikazioaren eztanda-prozesua.”

Historia eta klase-kontzientzia – Lukacs

Halere, Lukacs-en “praxiaren” kontzeptuak, nahiz eta hamaika aldiz errepikatu, izaera idealista hartzen du: ez du ekonomiaren oinarri gisa gizartearen eta naturaren elkartrukatzeko ezinbestekoa den lanaren kontzeptuarekin lotzen, merkantzia-ekonomiaren egitura konplexuetan soilik baizik.

“Lana aberastasun ororen iturria da, baieztatzen dute Ekonomia politikoan adituek. Hala da, hain zuzen ere, naturaren pare, honek aberastasunean bihurtzen dituen materialen hornitzaile gisa. Baina lana hori baino askoz ere gehiago da. Giza-bizitza guztiaren oinarrizko eta funtsezko baldintza da. Eta hala da halako graduan, lanak, neurri batera arte, gizakia bera sortu duela esan behar dugula.”

Lanaren papera tximua gizakian eraldaketan – Engels

Naturarekiko ikuspegi metafisikoak ere praxiaren kontzeptu materialistaren elaborazio zuzen bat ekiditen du, zeren, nola emango da praxia gizakiaren eta naturaren artean ez badago hauen arteko harreman dialektikorik?

“Lan-prozesua, bere elementu simple eta abstraktuetan azaldu dugun bezala, xede batera bideratutako jarduera gisa, erabilera-balioak ekoiztea helburu duena, naturak eskaintzen duenaz jabetzea giza-beharrei erabilgarri egiteko, naturaren eta gizakiaren arteko metabolismoa gertatu ahal izateko baldintza orokorra da, giza-biziaren baldintza berezko eta betierekoa, eta ondorioz, honen edozein formaz independentea eta era berdinean komuna gizarte-forma guztiei. Horregatik, ez zen beharrezkoa langilea beste langile batzuekin harremanean aurkeztea. Nahikoa zen aurkeztea, alde batetik, gizakia eta bere lana, eta bestetik, natura eta materia naturalak. Gariaren zapoak ez digu esaten nork landu duen, ezta prozesu honek adierazten zein baldintzetan garatzen den, esklabuen kontramaisuaren zigor izugarriaren menpe ala kapitalistaren begirada beldurtiaren menpe, ea Zintzinato-k uztatu duen bere golde-lur parean, ala piztia harrikada batez hiltzen duen basatiak.”

Kapitala, I. liburua – Marx

Horrela, praxia “kosifikazioa” gainditzeko jarduna izango litzateke, “klase”-(auto)kontzientziaren bidez lortu beharrezkoa. Honek kontraesanen eta iraultzatzearen esentziari aiurri subjektibista ematen die, praxia kontenplazio idealista baten aldarri bihurtuz.

“Badirudi horrela bilatzen genuena aurkitu dugula: arrazoi puruaren eta arrazoi praktikoaren dualtasun gaindiezinen funtsa, «ekintzaren» subjektuaren eta osotasun gisako errealitatearen «ekoizpenaren» funtsa. Jarrera hau (kontzeptu argigarri horren zentzuen ugaritasun aldakorra beharrezko gisa ulertzen badugu, den bezala uzten duen bitartean) ez da era mitologizantean eraikuntza trazeendente batean bilatu behar; ez da soilik «egitate psikiko» bat bezala agertzen, kontzientzian nostalgia bat bezala, baizik eta egikaritze-eremu zehatz eta erreal bat ere badauka: artea.”

Historia eta klase-kontzientzia – Lukacs

Izan daiteke Lukacs-ek bere buruan muntatutako filmean honek zentzuren bat izatea, baina ez du inondik inora zerikusirik Sozialismo Zientifikoak defendatzen duenarekin.

“Izpirituaren eta gorputzaren dualismoaren” ezabapen materialista (hots, monismo materialista) izpiritua gorputzaz independenteki existitzen ez dela da, izpiritua bigarren mailakoa dela, garunaren funtzio bat, kanpoko munduaren isla bat. “Izpirituaren eta gorputzaren dualismoaren” ezabapen idealista (hots, monismo idealista) izpiritua gorputzaren funtzioa ez dela da, izpiritua dela ondorioz lehen mailakoa, “ingurunea” eta “NI”a “elementu-konplexu” batzuen eta beren lotura bereiziezinean soilik existitzen direla. “Izpirituaren eta gorputzaren dualismoa” ezabatzeko bi forma hauetatik kanpo, zeharo aurkakoak, ezin da eklektizismoa baino beste formarik egon, hots, materialismoaren idealismoarekin nahasmendu ulergaitz hori.”

Materialismoa eta enpirio-kritizismoa – Lenin

Lukacs-en obsesio suminkorra Engels-ekiko ez da honekin bukatzen halere:

“Eta Engels-ek dionean, industriari buruz, horrela «ekoitzia» dena «gure helburuentzako» egitate erabilgarria dela, badirudi jada bere gaztaroko entsegu bikainean argitasun gaindiezinez deskribatu zuen gizarte kapitalistaren funtsezko egitura une batez ahaztu duela. Ahaztu du, bai horixe, gizarte kapitalistan «parte-hartzaileen kontzientzia-eza euskarri duen» «lege naturala» dela. Industria -«jomugak» planteatzen dituen heinean- ez da, zentzu erabakiorrean, zentzu historiko eta dialektikoan, lege natural sozialen objektu baino eta ez subjektu. Marx-ek aldi askotan eta behin eta berriz karakterizatu du kapitalista (eta ezin da bera baino izan «industriaz» mintzo garenean iraganean edo orainean) pertsona bat bezala. (...) Begi bistakoa da, beraz, marxismoaren izpirtuan -usaian Engels-ek ere zentzu honetan interpretatzen duena- «industria», hots, kapitalista aurrerapen ekonomiko, tekniko, eta abarren eramaile gisa, ez duela ekiten, baizik eta ekintzaren menpe dagoela, eta bere «aktibitatea» lege sozial naturalen efektu objektiboen behaketa eta kalkulu zehatzetan amaitzen dela.”

Historia eta klase-kontzientzia – Lukacs

Gidoilari iparramerikar batek idatzitako zerbait dirudien arren, bai, Lukacs-ek industria eta burgesia gauza bera direla dio.

Berarentzat burgesiak ezin du benetako ezagutza lortu kapitalismoaren legeen menpe dagoelako, eta ondorioz bere kontzientzia banakoarena besterik ezin du izan, “osotasunera” iritsi ezin den objektu eta inoiz ez subjektu. Aurretik mordoilo hegeliar hau erraustu badugu ere, ikus dezagun berriro:

“Banakoa ezin da inoiz gauzen neurria izatera heldu, banakoak halabeharrez errealitate objektiboari aurre egiten baitio, aurkitzen dituen gauza gerarazien multzoa, lehendik badirenak, bukatutakoak eta aldaezinak direnak, zeinei buruz baieztatze ala ukatze aburu subjektibo batera iritsi baino ezin den. Soilik klasea (ez «espezia», kontenplaziozko banakoa bat besterik ez dena, liraindua, mitoan bihurtua) erreferitu daiteke errealitatearen osotasunera era praktikoa eta iraultzailean. Eta klasea berak ahal du soilik lehenik baden, emandako, munduaren objektibitate kosifikatuan, aldi berean bere patu propioa den prozesua sumatzeko moduan badago.”

Historia eta klase-kontzientzia – Lukacs

Ezin da seriozki hartu Engels-en aurkako akusazio gisa industria eta burgesiaren parekatze hau, industria behargin-klasearen jaiotzarako eta sozialismoaren eraikuntzarako funtsezkoa den zerbait baita. Are gutxiago bere ikuspegi idealista justifikatzeko zerbait bada.

“Idealismo filosofikoa banakoaren kontzientzia gizateriaren kontzientziagatik ordeztua izategatik desagertuko dela pentsatzea, edo gizaki bakar baten esperientzia sozialki antolatutako esperientziagatik, kapitalista bat konpainia anonimo batengatik ordeztua izateagatik kapitalismoa desagertuko dela pentsatzea bezalakoa da.”

Materialismoa eta enpirio-kritizismoa – Lenin

Azkenik, materialismoa eta idealismoa banatzeko behin betiko froga-harrira iritsi gara: islaren teoriara.

“Ulerkuntza honek soilik ipintzen du kontzientziaren egitura kosifikatuaren azken hondarrean eta bere adierazpen teorikoan, berezko gauzaren arazoan, barneratzeko egoeran. Friedrich Engels behin era arinki zalantzagarrrian mintzatu zen auzi honen inguruan. Marx eta bere burua eskola hegeliarraren kontra jartzen duena deskribatzerakoan esan zuen: «Ikuspuntu materialistatik gure garuneko kontzeptuak berrero objektu errealean isla gisa hartzen ditugu, objektu errealak kontzeptu absolutuaren maila bat edo bestearen isla gisa hartu ordeztu». Mahagaineratu behar da, alabaina, auzi bat, eta Engels-ek ez du soilik mahaigaineratzen, baizik eta erantzuten du ere, hurrengo orrialdean, gure zentzuan erabat, «mundua ez dela bukatutako gauzen multzo bat bezala ulertua izan behar, prozesu multzo bat bezala baizik». Baina gauzak ez badaude, zer «islatzen» du pentsamenduak bada? Ezinezkoa da hemen, zeharka bada ere, islaren teoriaren historia ematea, arazo horren irismen osoa honek soilik erakutsi dezakeen arren. «Islaren» doktrinan teorikoki objektibatzen baita pentsamenduaren eta izatearen, kontzientzia eta errealtatearen dualtasun gaindiezina –kontzientzia kosifikatuarentzat-. Eta ikuspuntu horretatik gauza bera da gauzak kontzeptuen isla gisa ala kontzeptuak gauzen isla gisa bereiziak izatea, kasu bietan dualtasunak zurruntasun logiko gaindiezin bat erdiesten duelako. (...) Gaizkiulertu nabarmena da ezagutzaren teoria kantiarra eszeptizismo eta agnostizismo bat bezala interpretatzea. Hala ere, gaizkiulertu hori doktrina berean ditu erroak, egia esanda, ez logikan berehala, baizik eta logikaren metafisikarekin harremanean, pentsamenduaren izatearekin harremanean. Baina, ulertu beharra dago kontenplaziozko jarrera oro, beraz kontra jartzen zaion objektu baten ezagutza egiteko gisa ezartzeko beharra duen «pentsamendu puru» oro, subjektibitatearen eta objektibitatearen arazoa aldi berean honela mahaigaineratzen duela. Pentsamenduaren objektua (aurrez aurre ipinita bezala) subjektuari arrotza zaion zerbaitean bihurtua da, eta honela ateratzen da pentsamenduaren objektuarekin bat-etortzearen arazoa.”

Historia eta klase-kontzientzia – Lukacs

Ez dugu minutu bat bera ere galduko Kant-ena agnostizismoa zela berresteko, nahiz eta argi eta garbi uzten duen zein urrun dagoen Lukacs marxismotik. Baina bai eskainiko diogu arreta berezia islaren teoriaren “dualtasun gaindiezinari”: bere esanetan islaren teoria okerra da giza-kontzientziak fenomenoak islatu ezin dituelako, hauen “argazkiak” soilik baizik.

“Ezagutza pentsamenetik objektura hurbiltze betierekoa, amaigabea da. Naturaren isla gizakiaren pentsamenean ez da ulertua izan behar ”era bizigabe”, “forma abstraktuan”, mugimendurik gabekoa, kontraesanik gabe, baizik eta mugimenduaren betiereko prozesuan, kontraesanen agerpenean eta hauen ebazpenean.”

Koaderno filosofikoak – Lenin

Kontzientziak materia, mundu objektiboa, islatzen du. Hau da, pertzepzio eta sentipenen bidez, esperientziaren bidez, materiaren alde ezberdinak islatzen dituzten kontzeptuak eraikitzen ditu. Beraz kontzeptu hauek irudiak dira, “argazkiak”, ez objektuak berak, eta ez dituzte hauen esentzia bere osotasunean adierazten ez bere harremanak inguruko materiarekin kontuan hartzen.

“Gure irudikapenen objektuak ez datoz bat gure irudikapenekin, “berezko gauza” ez dator bat “guretzako gauzarekin”, hau lehenaren zati edo alde bat bakarrik delako, hala nola gizakia bera bere irudikapenetan islatutako naturaren partikula bat besterik ez den bezala.”

Materialismoa eta enpirio-kritizismoa – Lenin

Kontzientzian, abstrakzioaren bidez eta arrazoibidea erabiliz ematen den garapen dialektikoa, irudi hauen eta benetako objektuen artean ematen da. Baina “benetako objektu” hau ez da errealitate materialeko bera, hau kontzientziaz kanpo eta independente baita, baizik eta beste irudi bat, esperientziak aurrekoa baino sakonagoa eta osoagoa izatea lortu duena (berria), eta aurreko irudiari (zaharra) kontrajartzen zaiona. Garrantzitsua da azpimarratzea kontzientzian barne-kontraesana dela ematen dena irudien artean, benetako objektuaren eta honen islaren artekoa kanpo-kontraesana den bitartean.

Baina honen ondorioz kontzientzian sortutako irudi gorenak (ala ez) ez du errealitate materialean eraginik izango, ez du hau aldatzeko aukerarik izango, soilik pentsamenduen munduan geratuta. Honen egiazkotasuna errealitate materialeko benetako objektuen arteko harremanak, garapen legeak eta esentzia islatzeko duen gaitasunak zehaztuko du. Beraz materiak beti mugatzen du subjektibitatearen eragina bere gain.

“Egia erlatiboan pilaketatik bere garapenaren bilakaeran egia absolutua eratzen da; egia erlatiboak gizateriaz independente den objektu baten irudi erlatiboki zehatzak dira; irudi horiek gero eta zehatzagoak izatera iristen dira; egia zientifiko bakoitzak badauka, bere erlatibitatea gorabehera, egia absolutuaren osagaiak; tesi guzti hauek, Engels-en Anti-Dühring-a hausnartu duen edozeinentzat agerikoak direnak, ulertezinak dira ezagutzaren teoria “modernoarentzat”.”

Materialismoa eta enpirio-kritizismoa – Lenin

Hau da justuki teoria beharrezkoa izatearen arrazoia, abstrakzioaren bidez ahalbidetzen baitu mundu objektiboa zuzentzen duten legeak aurkitzea, eta horrela gainditzea ezagutzaren lehen maila diren sentipenak eta intuizioak.

“Marxismoak zientziaren legeak -berdin Zientzia Naturalen legeei zein Ekonomia Politikoaren legeei buruz- gizakien nahimenaz independenteki jarduten duten prozesu objektiboen isla gisa ulertzen du. Gizakiek lege hauek aurkitu, ezagutzera heldu, ikasi, ekiterakoan kontuan hartu eta

gizartearen onurarako baliatu ditzakete; baina ezin dituzte moldatu ezta deuseztatu ere. Eta are gutxiago ahal dezakete zientziaren lege berriak eratu edo sortu.”

Sozialismoaren arazo ekonomikoak ESSBn – Stalin

Lukacs-entzat, ordea, materiaren forma ezberdinen mugimenduaren legeak aurkitzea marxismoaren aurka doa, jarrera ezkor baten adierazle omen dena.

“Eta, errealitate ekonomiko eta sozialean azterketan, prozesu historikoaren osotasunaren kontsiderazioa, Marx eta Hegel-en metodoa, alde batera utzi duen «marxista» oro, era batean edo bestean, zientzia partikular baten metodo ez-historikoaren kontsiderazio «kritikora» «legeak» bilatuz hurbiltzeko, halabeharrez itzuli behar da -ekintzaren arazoa fokuratzen duenetik- eskola kantiarraren etika postulatio abstraktura.”

Historia eta klase-kontzientzia – Lukacs

Hau Ekonomia Politikoaren legeei ere muzin egitera darama, Sozialismoaren eraikuntzaren inguruko ikuspegi idealistak zabalduz.

“Ezagutzak forma unibertsalak “sortu” ditzakeenaren ideia, ordenaz kaos primitiboa ordeztu eta abar. filosofia idealistaren ideia bat da. Unibertsoa materiaren mugimendua da legeen arabera, eta gure ezagutzak, naturaren produktu gorena izanda, soilik lege horiek islatu ditzake.”

Materialismoa eta enpirio-kritizismoa – Lenin

Materialismo dialektikoaren ideia eta kontzeptu guzti hauek Engels-ek ‘Anti-Dürhing’ lanean jorratu zituen, Marx-ek berak bere elaborazioan parte hartu eta goitik behera irakurri zuena, bestalde. Ondorioz, Marx-ek eta Engels-ek argitaratutako lanen desberdintasunaren arrazoia ez da inola ere haien ikusmoldeen arteko bateraezintasun bat. Engels-ek berak azalduko digu:

“Marx eta nire artean existzen zen lanaren banaketaren ondorioz, gure iritziak berripaperetan defendatzea egokitu zitzaidan, bereziki aurkako ideien kontra borrokatzea esan nahi zuena, Marx-ek bere lan handi nagusia amaitzeko denbora izan zezan. Honek gure ikusmoldea azaltzera eraman ninduen, kasu gehienetan era polemikoan, beste ikusmoldeei kontrajarriz.”

Etxebizitzaren arazoari hitzaurrea – Engels

LUXEMBURGISMOARI BABESA

Rosa Luxemburg ezkertiarak hainbat tesi anti-leninista sostengatu zituen bere bizian zehar, hala nola, autodeterminazio eskubidearen eta nazio-askapen borrokan aurkako ikuspuntua (Lenin-ek ‘ekonomismo inperialista’ deitu zuena), emakumearen zapalkuntza espezifikoa erantzuna emateko erakundearen beharra ukatzea, antolakuntza arloan mentxebikeak babestea...

Lukacs Luxemburg-en alde ipini zen auzi anitzetan eta honen ikusmoldea babestu zuen, eta bere burua kritikatzera behartuta ikusi zuen arren (behargin eta nekazarien arteko aliantza, Konstituziogilearen desegitea, Brest-Litovsk, zentralismo demokratikoa...), beti saiatu izan zen honen kokapenak mantentzen.

“Zeren horrela ez zen soilik ardurarik gabe utzi proletalgoan dibulгатzea, propaganda-forman gutxienez, antolakuntza iraultzailearen arazoak berau prestatzeko, gutxienez intelektuali, etorri behar zenarentzat (ez zen posible orduan gehiago egitea), baizik eta Rosa Luxemburg, Pannekoek eta beste batzuen iritzi zuzenek ere ezin izan zuten -joera politiko gisa ere- nahikoa zehaztu; Rosa Luxemburg-en hitzetan estariak geratu ziren, sinpleki teorikoak, eta haien begizta mugimendu zehatzarekin izaera utopikoa mantendu du beti.”

Historia eta klase-kontzientzia – Lukacs

Hauetako tesi garrantzitsuenetako bat, ‘Kapitalaren metatzea’ liburuan plazaratutakoa, “Kapitalaren mugarik gabeko erreprodukzioaren ezintasunarena” da.

“Metatzearen posibilitatean zalantza Rosa Luxemburg-en bere forma absolutistaz libratzen da. Metatzearen baldintzen auzi historikoan bilakatzen da eta horrela, mugarik gabeko metatzea ezinezkoa denaren ziurtasunean. Bere multzoaren ingurune sozialean tratatua izategatik, metatzea dialektikoa bihurtzen da. Bera sistema kapitalista osoaren dialektikan garatzen da. Rosa Luxemburg-ek dio «hedatutako erreprodukzioaren eskema, Marx-en arabera, errealitateari dagokion unetik, hark metatze-mugimenduaren muga historikoa, amaiera adierazten du, hots, ekoizpen kapitalistaren bukaera. Metatzearen ezinezkotasunak esan nahi du, maila kapitalistan, ekoizpen-endarren haraindiko garapen baten ezinezkotasuna eta, ondorioz, kapitalismoaren endekapenaren behar historiko objektiboa. Hortik datoz kontraesan guztiak azken fasearen mugimenduan, fase inperialistarenak, kapitalaren ibilbide historikoaren azkeneko aldiarenak.» Ziurtasun dialektikoan bihurtzerakoan, zalantzak iraganetik datozen alde burges ttipi eta atzerakoi guztiak albo batera uzten ditu, arrastorik utzi gabe: optimismoan bihurtzen da, iristen ari den iraultza sozialaren ziurtasun teorikoan.”

Historia eta klase-kontzientzia – Lukacs

Tesi honen arabera, Marx-ek ‘Kapitala’-ren II. liburuan jorratutako Kapitalaren hedatutako erreprodukzioaren azterketa okerra izango litzake, honetan kanpo-merkataritza kontutan hartu ez zuelako. Ondorioz, kapitalismoak mundu osoan aurreko ekoizpen-modu klasistak deuseztatu ostean jada ezin izango luke metatzerik aurrera eraman, bere kolapsoa ekidinezina izanik.

Lehenik eta behin, azpimarratu beharra dago Marx-ek berak argi eta garbi utzi zuela ez zela beharrezkoa kanpo-merkataritza Kapitalaren hedatutako erreprodukzioaren azterketan sartzea:

“Horregatik, kanpo-merkataritza kontuan hartzea urtean erreproduzitutako ekoizkinaren balioa aztertzeari dagokionean soilik nahasteko da irizpide berririk eman gabe, ez arazoaren baldintzen inguruan ezta bere ebazpenaren inguruan ere. Ondorioz faktore hori gutiz baztertu behar dugu (...).”

Kapitala, II. liburua – Marx

Hau argituta, aztertu dezagun nola ebatzi zuen auzia Marx-ek.

“Lehena: herrialde kapitalista baten ekoizkin globala, edozein produktu solte bezala, hiru partez osatuta dago: 1) kapital konstantea, 2) kapital aldakorra, 3) gainbalioa. (...) Bigarrenik, horrela formulatu daitekeena: ekoizpen kapitalistaren barnean beharrezkoa da bi sektore handi bereiztea, direnak: I) ekoizpen-baliabideen ekoizpena, ekoizpen-kontsumora bideratutako objektuena, hots, ekoizpena, ez pertsonen kontsumora, kapitalaren kontsumora baizik, eta II) kontsumo-baliabideen ekoizpena, hots, banako kontsumoari bideratutako artikulua.”

Kapitalismoaren garapena Errusian – Lenin

Kontua da, nola banatzen da gainbalioa sektore eta parte hauetan, Kapitalak bere erreprodukzioa hedatutako eran egiteko, hots, ekoizpen-baliabideen sektorea, I. sektorea, handitzen jarraitzeko?

Langileen soldatak (kapital aldakorra) eta kapitalistek lortutako irabazia (gainbalioa) II. sektorean guztiz egikarituko balitz kontsumo-baliabideak lortzeko, hauen ordez sektore honetarako ekoizpen-baliabideak, lehengaiak eta lan-bitartekoak (kapital konstantea), I. sektoretik lortuz, soilik I. sektoreko produktu-masa bat geldituko litzake, I. sektorean bertan berriro sartu beharrezkoa (kapital konstante gisa). Baina honela ez genuke hedatutako erreprodukziorik izango, ez litzake I. sektorea handituko. Bi sektoreetako burgesek, ordea, haien gainbalioaren zati bat (gero eta handiagoa) I. sektorean egikarituko balute kapital konstante gehiago lortzeko, dena kontsumoan xahutu ordez, orduan bai emango litzake hedatutako erreprodukzioa. Hona hemen “ebatzi ezinaren” ebazpena.

Kapitalismoaren nahia etengabe irabaziak handitzeko da ezagutzen diren mugak hautsi eta merkatu berriak aurkitzera bultzatzen duena, sistema aurre-kapitalistak ere irenstera daramana, ez kanpo-merkataritzaren ezinbestekotasuna.

Zergatik suposatzen da kanpo-merkatua soilik gainbalioaren egikaritzean beharrezkoa dela, eta ez dela beharrezkoa izango soldaten truke lortuko diren elikagaiak, ekoizpen-prozesuan sartuko diren lehengaiak edo luxuzko kontsumo-produktuak lortzeko? Eta kapitalistek, haien merkantziak itsasora botatzen dituzte, ala saldu eta beste batzuentzat trukitzen dituzte? Ondorioz honek ez du gainbalioaren egikaritzearen arazoarekin zerikusirik.

Are gehiago, kapitalismoaren fase inperialistan Kapitala bera da esportatzen dena, herrialde kolonialetan industrializazioa sustatuz eta langileetatik gainbalio gehiago atereaz... baina ez, ikusi dugunez, “kanpoalde” hori ezinbestekoa duelako bere erreprodukziorako, “barnean” ere halako zonaldeak eta “behar” berrientzako merkatuak irekitzera jotzen baitu.

Tesi hau, eskuineko sozialdemokraziak erabilitako “kolapsoaren tesiaren” beste aurpegia da: honetan ‘irabazi-tasaren beheranzko joerak’, kapitalaren inbertsioekin alderatuta gainbalioa gero eta txikiagoa izatea dakarrena, luzera begira kapitalismoa bera bakarrik erortzea ekarriko zuen. Ondorioz, egin beharrekoa parlamentua langileen aldeko erreformak lortzeko erabiltzea izango litzateke, hau gertatzearen egunaren zain.

Luxemburg-en tesiak, ordea, bat-batekotasunari gurtzazko izaera hartzen du: kapitalismoaren krisi bakoitza “behin betikoa” izatearen esperoan, iraultzaileek masen greba eta manifestaldiak babestu beharko lituzkete, baina hauek boterearen eskuratzera era planifikatuan bideratzeko kontzienteki antolatu gabe.

“Masa-ekintzen, masen greba iraultzaileen arazoak bere ezintasuna erakusten du masen mugimendu espontaneoan aurrean, halako ekintzen «antolakuntza-prestaketa» baten ideia ezkututzen duen lilurakeria oportunistak astintzen du, frogatzen du antolakunde horiek inoiz ez doazela masen ekintza errealean atzetik baino, balaztatu edo oztopatzen dituzte aurrera eginarazi edo zuzendu ahal izan ordez. Rosa Luxemburg, masa-ekintzen garrantziaren inguruan iritzi argiena duena, kritika soil hau baino urrunago doa.”

Historia eta klase-kontzientzia – Lukacs

Baina mekanizismo hutsa da pentsatzea kapitalismoa bera bakarrik eroriko dela klase iraultzaileen ekite kontzientea gabe, sistema baten hondamenak ez baitakar automatikoki berriaren agerpena (are gutxiago komunismoa, ekoizpen-harreman propiorik gabe jaiotzen dena), hau gabe errazagoa baita gizarteak berak bere burua suntsitzea.

“Egoera iraultzaile orok ez duelako iraultza sortzen, baizik eta soilik egoerak non gorago zerrendatutako aldaketa objektiboek aldaketa subjektibo bat gehitzen zaion, zera: klase iraultzailearen gaitasuna gobernu zaharra hausteko –edo puskatzeko– masen ekintza iraultzaileak aurrera eramateko, inoiz, ezta krisi garaietan, ez dena “eroriko”, baizik eta erorarazten dena.”

II. Nazioartekoaren porrota – Lenin

Horregatik da hain garrantzitsua Alderdi Komunistaren antolakuntza-lana iraultzaren prestakuntzan, botere bikoitzaren indartzean baita faktore subjektiboaren lanketan ere.

“Alderdia, edozeren aurretik, behargin-klasearen abangoardia-destakamendua izan behar du. Alderdiak bere lerroetara behargin-klasearen ale onenak erantsi behar ditu, beren esperientzia, grina iraultzailea, proletalgoaren kausari beren eraspene mugagabea asimilatu. Baina, benetako abangoardia destakamendua izateko, Alderdia teoria iraultzaile batez egon behar du hornitua, mugimenduaren legeen ezagutzaz, iraultzaren legeen ezagutzaz. Bestela, ezin du proletalgoaren borroka zuzendu, ezin du proletalgoa bere atzetik eraman. Alderdia ezin da benetako alderdia izan behargin-klasearen masak sentitzen eta pentsatzen duena erregistratzera sinpleki mugatzen bada, honen mugimendu espontaneoaren gibelera arrastan badoa, ez badaki mugimendu espontaneoaren inertzia eta axolagabekeria garaitzen, ez badaki proletalgoaren unean uneko interesen ginetik ipintzen, ez badaki masak proletalgoaren klase-interesen ulermenera jasotzen.”

Leninismoaren oinarriak – Stalin

Lukacs/Luxemburg-entzat, ordea, Alderdi Komunistaren papera “teorikoagoa” izango litzateke, “kontzientziaren zaindari” gisa mugimendu iraultzailea aholkatzera mugatuz, botere berriaren aldeko borroka planifikatua kontzienteki antolatzea alboratuz.

“Rosa Luxemburg-ek azkar ulertu zuen antolakuntza askoz gehiago dela prozesu iraultzailea ondorio bat aurreko baldintza bat baino, proletalgora bera klasean eratu ezin daitekeen bezala ez bada prozesuan eta honengatik. Prozesu honetan, alderdiak ezin duena ez eragin ez ekidin, proletalgoaren klase-kontzientziaren, bere misio historikoaren kontzientziaren, eramailea izatearen paper jasoa dagokio ondorioz. Alderdiari edozeren aurretik edo bakarrik antolakuntza-egitekoak esleitzen dizkion jarrerak, azaleko behatzaile batentzat aktiboagoa eta gehienez ere «errealistagoa» dena, iraultzaren egitatearen aurrean fatalismo hutsalaren kokapen batera seguru daraman bitartean, Rosa Luxemburg-en ikusmoldea benetako aktibitate iraultzailearen iturria da.”

Historia eta klase-kontzientzia – Lukacs

Honek gutxiestera darama Alderdi Komunistaren paper erabakigarria iraultzaren antolakuntza eta gauzapenerako, hala nola gainegitura burgesaren suntsiketarako eta gainegitura sozialistaren eraikuntzarako.

“Hemen garbitasun handiz nabarmentzen da ideia sozial berrien, instituzio politiko berrien, Botere politiko berriaren paper itzela, ekoizpen-harreman zaharrak indarrez ezabatzea deituak. Ekoizpen-indar berrien eta ekoizpen-harreman zaharren arteko gatazkaren oinarriaren gain, gizartearen eskaera berrien oinarriaren gain ideia sozial berriak jaiotzen dira, ideia berri hauek masak antolatu eta mugiarazten dituzte, masak ejertzito politiko berri batean elkartzen dira, Botere iraultzaile berri bat sortzen dute eta Botere hori indarrez erregimen zaharra ezabatzeko erabiltzen dute ekoizpen-harremanen eremuan eta erregimen berria berresten dute. Garapenaren prozesu espontaneoak tokia uzten dio gizakiaren ekintza kontzienteari, garapen baketsuak eraldaketa bortitzari, bilakaerak iraultzari.”

Materialismo dialektikoaren eta materialismo historikoaren inguruan – Stalin

Luxemburg-entzat “berezko” klase-kontzientziatik, langile izatearena baina ideologia burgesaren baitan, “berarentzako” klase-kontzientziara jauzia krisi ekonomikoaren ondorioz ematen da.

Baina “berarentzako” klase-kontzientzia hau Sozialismo Zientifikoaren printzipioen eta Nazioarteko Mugimendu Komunistaren esperientzian oinarritzen da, honen ikasketa eskatzen duena, behargin-mugimenduak espontaneoki garatzen ez baitu eta “kanpotik” sartu behar baita.

“Eta sozialismo zientifikoa, mugimendu proletarioaren adierazpen teorikoa, baldintza historikoak eta horrekin ekintza horren (iraultza proletarioaren) izaera bera ikertzera deitutakoa da, iraultza egitera deitutako klaseari, klase zapalduari, bere ekintza propioaren baldintzen eta izaeraren kontzientzia sarraraziz.”

Sozialismo utopikotik sozialismo zientifikora – Engels

Lukacs-entzat, ordea, ez dago benetako alderik bi kontzientzia moten artean, proletalgoak osotasunaren subjektu gisa eguneroko “kosifikazioaz” jabetzean kontzientzia mota honetara iristen delako.

“Proletalgoarentzat bere izate sozialaren irudi bitan banatu hau ez da existitzen. Proletalgoa lehenik bilakaera sozialaren objektu puru eta bakun gisa agertzen da lehenik. Behargin partikularra bere bizitza propioaren subjektu gisa bere buruari agertzen zaion eguneroko bizitzaren une guztietan, bere izatearen berehalakotasunak lilurakeria hau urratzen dio.”

Historia eta klase-kontzientzia – Lukacs

Ezinezkoa da, edonola ere, bere izate sozialaren kontzientzia hau guztiz bat egitea egoera errealairekin. Ondorioz, jauzi hau benetako mirari baten itxura hartzen du, ez duelako langileriaren izaera iraultzailea Kapitala-Lana kontraesanean lanaren tokia hartzean ipintzen.

“Kontzientzia sozialak izate soziala islatzen du: halakoa da Marx-en doktrina. Isla islatutakoaren gutxi gorabehera zehatza den kopia bat izan daiteke, baina zentzugabea da hemen identitateaz mintzatzea. (...) Materialismo historikoak izate soziala gizateriaren kontzientzia sozialaz independente aitortzen du. Kontzientzia, hala han nola hemen, ez da izatearen isla bat baino besterik, kasu hoberenean gutxi gorabehera zehatza (egokia, ideala zehaztasunari dagokionez) den bere isla. Ezin da inongo funtsezko postulatu, inongo zati esentzial atera marxismoaren filosofia honi, pieza bakar batez altzairuan landutakoa, egia objektiboaz aldendu gabe, gezur burges atzerakoiaren besoetan erori gabe.”

Materialismoa eta enpirio-kritizismoa – Lenin

Ideia hauek erabiliz, mugimendu batzuk “kosifikazioarekin” hautsiko lukeen edozein harreman sozial jada “komunismoa eraikitzea” izango zenaren irudipena zabaldu dute, hau gainditzeko praktika utopiko-atzerakoietan eroriz.

“Egitura honekin, gizakiaren multzoaren pertsonalitatearen abstrakzio horrekin, ikuspuntu abstraktu baten peko subsunzio horrekin, hausten duen giza-harreman oro urrats bat da giza-kontzientziaren kosifikazio horren suntsipenerantz. Baina, urrats hori pertsonalitatearen multzoaren eginahal aktiboa eskatzen du.”

Historia eta klase-kontzientzia – Lukacs

Honela industriaren beharra ukatzen da, sozialismoaren eraikuntza ekonomikoaren funtzesko osagaia dena. Horregatik da oso garrantzitsua teknika modernoa barneratzea eta lanabes eta makina aurreratuak lortzea, praktika sozialaren sintetizatze gisa, baita gizakiaren pertzeptzioari sakontasuna ematen diotelako ere, errealtate materiala ezagutzeko kokapen jasoagoan ipiniz.

“Baina industria bitartez Zientzia naturala giza-bizitzan praktikoki sartu den heinean, eraldatu du eta giza-emantzipazioa prestatu du, berehala deshumanizazioa burutu behar zuen. Industria naturaren –eta horregatik Zientzia naturalaren- benetako harreman historikoa da gizakiarekin; horregatik, giza-indar esentzialen aurkitze esoteriko gisa ulertzerakoan, naturaren giza-esentzia edo gizakiaren esentzia naturala ulertzen da baita ere; horrekin galtzen du Zientzia naturalak bere orientabide abstraktua, materiala, edo hobeki idealista, eta giza-zientziaren oinarri bihurtzen da, jada –nahiz eta forma besterenduan- giza-bizitza errealairekin oinarri bihurtu den bezala. Bizitzari oinarri bat ematea eta beste bat zientziari, ondorioz, gezur bat da aurretiaz. Giza-historian garatzen den natura –giza-sozietatearen jaiotzaren egintzan– gizakiaren benetako natura da; hortik

natura, nahiz eta besterendutako forman, industrian garatzen den bezala, benetako natura antropologikoa izatea.”

Eskuizkribu ekonomiko eta filosofikoak – Marx

Gainera, Lukacs-ek pertsonalitatearen xurgapen osoa mugimenduan, eta ez borroka ideologikoa eta erakundearen arazketa, aurkezten du berrikuskeriaren aurkako antidoto gisa. Honek sektakeriara darama, komunitate itxi eta isolatuaren antzerako mugimenduen sorkuntzara. Harreman “naturalak” berrezartzeaz mintzo direnean, orduan, zertara bueltatzeaz mintzatuko ote dira (patriarkatua, morrontza...)?

Bada oraindik aipatu beharreko auzi bat: nahiz eta Lukacs-ek bere burua “marxista” deitu, nahiz eta Rosa Luxemburg-ek bere burua “marxista” deitu ere, eta nahiz eta Lukacs-ek Rosa Luxemburg “marxista” deitu, haien jarraitzaileetako batzuk hauek “marxistak” ez baizik eta “marxianoak” zirela diote (martzianoak agian?).

Honekin nolabait Marx-en benetako jarraitzaileak eta Marx “aizundu” dutenak desberdindu nahi omen dituzte. Honen jatorria Marx-en esaldi batean dago, non, “marxista” frantziar batzuk esandako barrabaskerietatik aldentzeko, hurrengoa esan zuen:

“Marx-ek 70eko hamarkadaren amaieran esan zuen, “marxista” frantziarren inguruan, «tout ce que je sais, c’est que je ne suis pas marxiste» [dakidan guztia, ni marxista ez naizela da]. ”

Konrad Schmitd-i gutuna – Engels

Marx-ek bere burua ‘marxista’ deitzea arraz bitxia izateaz gain, argi dago berak esandako horiek benetako marxistak ez zirela esan nahi zuela, eta ez ‘marxismo’ izendapenaren aurka zegoenik. Engels-ek izendapen honen jatorria azalduko digu:

“Marx jenioa zen; gu, gainontzekoak, gehienez, talentuzko gizakiak. Bera gabe teoria ez litzake izango, ezta hurrik eman ere, gaur dena. Horregatik darama zilegizko eran bere izena.”

Ludwig Feuerbach eta ideologia germaniarraren amaiera – Engels

ONDORIOAK

Lan osoan zehar ikusi ahal izan dugunez, Lukacs-en pentsamoldeak zentzu materialistan guztiz garatu gabeko oinorde hegeliarra du, zinez gainditu ez zuena. Beraz, Marx eta Engels-en kritika gainditzailerik baten ordez Hegel-en berrezarpen idealista dugu honakoa, nolabait Hegel berrit "buruz gora" ipintzen duena.

Nahiz eta Lukacs intelektualki oso "altuerako" ideiak zituen pertsonaia gisa aurkezten den, bere bolizko dorretik botatzen zituenak, hauetan sakondu ostean burutazio idealistak besterik ez zirela antzeman dezakegu. Hots, esan daiteke haien urrezko idoloak buztinezko oinak dituela.

Beste era batean esanda, azal materialista baten barnean, muin idealista aurkitu dezakegu. Bestetik, ideologia burgesak gero eta gehiago bilatzen duena marxismo-leninismoaren aurkako borrokan.

"Marxismoaren faltsutze gero eta sotilago bat eta marxismo gisa aurkeztutako doktrina anti-materialisten mozorro gero eta sotilago bat: hori da berrikuskeria modernoa ezaugarritzen duena, hala ekonomia politikoaren eremuan, nola taktikaren arazoetan eta filosofiaren eremuan orokorrean, berdin gnoseologian zein soziologian."

Materialismoa eta enpirio-kritizismoa – Lenin

Hori da dena, lagunok!